**EKINTZAILETZA SUSTATZEKO INIZIA ARABACAMPUS PROGRAMAREN BAITAN, "TERRAFORMING" IZENEKO CERN IDEASQUARE WORKSHOPEAN PARTE-HARTZEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.**

**1.- HELBURUAK**

Deialdi honen helburuak honako hauek dira:

- Sinergiak ezartzea unibertsitateko kideen eta Genevako (Suitza) Partikulen Fisikako Europako Laborategiako (CERN) kide zientifikoen artean.
- Ikasleentzako prestakuntza jarduerak antolatzea; hain zuzen ere, planetaren jasangarritasunean gaur egun eta etorkizunean eragin positiboa izango duten ideiak eta proiektuak sortzeko tresnak eskainiko dituztenak.
- Ekintzailetzako ideia eta proiektu berritzaileak lantzea, ekonomia zirkularrarekin eta jasangarritasunarekin lotutako irtenbide teknologiko iraunkorrak emateko. Horretarako, etorkizuneko eszenatoki batera estrapolatuko dira teknologiak, beste Terra planeta batean zibilizazio jasangarri bat ezartzeko, ondoren, atzera egiteko eta gure Planetan aurrez aurre ditugun erronkei ikaskuntzak eta konponbide posibleak aplikatzeko.

**2.- HELBURUA**

Deialdi honen bidez ikasleak aukeratu nahi dira, EHUko Arabako Campusean matrikulatuta daudenen artetik edota bizilekua Araban izanda EHUko beste campusetan matrikulatuta daudenen artetik, parte har dezaten Genevako (Suitza) Ikerketa Nuklearrerako Europako Erakundearen (CERN) "TERRAFORMING" workshopean.

**BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA PARTICIPAR EN EL WORKSHOP "TERRAFORMING" DEL CERN IDEASQUARE, EN EL MARCO DEL PROGRAMA DE FOMENTO DEL EMPRENDIMIENTO INIZIA ARABA CAMPUS.**

**1.- OBJETIVOS**

Los objetivos de la presente convocatoria son:

- Establecer sinergias entre el colectivo universitario y la comunidad científica del CERN, el Laboratorio Europeo de Física de Partículas situado en Ginebra, Suiza.
- Promover actividades de formación para el alumnado que proporcionen las herramientas necesarias para la generación de ideas y proyectos que causen un impacto positivo en la sostenibilidad del planeta hoy y en el futuro.
- Trabajar sobre ideas y proyectos de emprendimiento innovadores que proporcionen soluciones tecnológicas sostenibles y relacionadas con la economía circular y la sostenibilidad. Para ello, se extrapolarán tecnologías a un futuro escenario para establecer una civilización sostenible en otro planeta Terra para, después, dar marcha atrás y aplicar los aprendizajes y posibles soluciones a los desafíos que enfrentamos en nuestro Planeta.

**2.- OBJETO**

Mediante la presente convocatoria se pretende seleccionar a un grupo de estudiantes matriculados/as en el Campus de Álava de la EHU o que estando domiciliados/as en Álava estén matriculados/as en otros Campus de la EHU para participar en el workshop "TERRAFORMING" de la Organización Europea para la Investigación Nuclear (CERN) situada en Ginebra, Suiza.

Las personas participantes en la presente

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonek 4. oinarrian adierazitako betebeharrak bete beharko dituzte. Hala ere, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu aurreko deialdietan hautatutako ikasleek.

convocatoria deberán cumplir los requisitos de la Base 4. No obstante, no podrá tomar parte en la presente convocatoria el alumnado seleccionado en anteriores convocatorias.

**3.- PERTSONA AUKERATUAK**

Ikerketa Nuklearrerako Europako Erakundeak (CERN) 2026eko azaroaren 15etik 20ra bitartean egingo duen "TERRAFORMING" workshop-ean parte hartzeko 16 pertsona aukeratuko dira.

Bidaiaren eta ostatuaren gastuak EHUren kontura izango dira. Horrez gain, parte hartzaile bakoitzari 340 euroko laguntza emango zaio, otorduetarako eta egunero ostatutik CERN-era joateko garraio gastuetarako.

Aukeratutako pertsonen zerrenda INIZIA Araba Campusaren webgunean emango da argitara: www.inizia.eus.

Epaimahaiak hala erabakitzen badu, plazetakoren bat esleitzeke geratu ahal izango da, parte hartzaileak ez badira heltzen gutxieneko puntuaziora.

**3.- PERSONAS SELECCIONADAS**

Se seleccionarán 16 personas para participar en el workshop "TERRAFORMING" de la Organización Europea para la Investigación Nuclear (CERN) que tendrá lugar del 15 al 20 de noviembre de 2026.

Correrán a cargo de la EHU los gastos de viaje y alojamiento. Adicionalmente las personas participantes recibirán una bolsa de ayuda de 340 euros por persona para sufragar los gastos de manutención y traslados diarios desde el alojamiento al CERN.

La selección de personas se publicará en la página web INIZIA Arabacampus: www.inizia.eus.

A estimación del jurado, alguna de las plazas podrá quedar vacante, si no se alcanza la puntuación mínima.

**4.- PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK**

EHUko kide hauek hartu ahal izango dute parte deialdi honetan:

- EHUko Arabako Campusean matrikulatuta dauden ikasleak edota bizilekua Araban izanda EHUko beste campusetan matrikulatuta daudenak.
- 2026/2027 ikasturtean master edo doktorego ikasketetan edo graduko azken mailan matrikulatuta daudenak.
- Ingeleseko B2 maila daukatenak -Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, edo horren parekidea-, programari etekina atera ahal izateko.

**4.- REQUISITOS DE LAS PERSONAS PARTICIPANTES**

Podrán tomar parte en esta convocatoria los miembros de la comunidad universitaria de la EHU que pertenezcan a estos colectivos:

- Ser estudiantes matriculados/as en centros del Campus de Alava de la EHU o que estando domiciliados/as en Álava estén matriculados/as en otros Campus de la EHU.
- Estar matriculado en estudios de máster o doctorado o de último curso de grado durante el año académico 2026/2027.
- Tener conocimientos de inglés a nivel B2 -de acuerdo al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (MCERL) o su equivalencia- para garantizar el correcto aprovechamiento del programa.

## 5.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Programan parte hartzeko izena www.inizia.eus webgunean emango da, 2026ko irailaren 18tik urriaren 11ra bitartean, egun biak barne. Parte hartzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Eskaera-formulaioa, behar bezala betea.
2. NAN, AIZ, pasaporte edo bizileku baimenaren kopia eskaneatua.
3. Ingelesaren jakite maila egiaztatzen duen agiriaren kopia eskaneatua. Maila egiaztatzeko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua edo horren parekidea erabiliko da.

   EHUk onartzen dituen hizkuntza agiri ofizialak esteka honetan daude ikusgai: https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-gaitasunaren-akreditazioa
4. Hiru minutuko bideoa (ingelesez), 'Why am I a good candidate to participate in this program?' izenburupean, eskatzailearen motibazio pertsonala, konpromisoa eta jarrera ekintzailea azaltzeko.
5. Proposamena (gehienez 1.800 karaktere edo 30 lerro), ekintzailetzaren ikuspegitik, "Nola baliatuko nuke CERNen izandako esperientzia Araban ideia, proiektu edo ekimen berriak garatzeko?" galderari erantzunez.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeko 68. artikuluaren arabera, ez bada aurkezten aurreko atalean adierazitako dokumenturen bat, edo dokumentazioa oker aurkeztuz gero, eskatzaileari akatsa

## 5.- PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

La inscripción se realizará a través de la página web (www.inizia.eus) entre los días 18 de septiembre y 11 de octubre de 2026, ambos incluidos. La persona solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

1. Formulario de solicitud debidamente cumplimentado.
2. Copia escaneada del DNI, NIE, Pasaporte o Permiso de Residencia.
3. Copia escaneada del Certificado de acreditación de nivel de inglés. Dicha acreditación se realizará utilizando el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (MCERL) o su equivalencia.

   Las Certificaciones Oficiales de idiomas admitidas por la EHU se encuentran en el siguiente enlace: https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-gaitasunaren-akreditazioa
4. Video de 3 minutos (en inglés) bajo el título 'Why am I a good candidate to participate in this program?' en el que se explique la motivación personal, el compromiso y la actitud emprendedora de la persona solicitante.
5. Propuesta (máximo 1.800 caracteres o 30 líneas) de carácter emprendedor que responda a la pregunta: "¿Cómo convertiría mi experiencia en el CERN en una oportunidad para desarrollar nuevas ideas, proyectos o iniciativas en Araba?"

De acuerdo con el artículo 68 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si en alguna de las candidaturas no se aportara alguno de los documentos señalados en el apartado anterior, o la misma fuera presentada de

zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko eskaera egingo zaio, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, deialdian parte hartzeko eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 945 014307 telefonora edo idatzi Arabako Campuseko Errektoreordetzara (inizia@ehu.eus).

manera defectuosa, se requerirá a la persona o personas solicitante/s que en un plazo de diez días, subsane/n la falta o acompañe/n los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se le/s tendrá/n por desistido/s de su petición.

Para más información, teléfono 945 014307 o inizia@ehu.eus del Vicerrectorado del Campus de Álava.

## 6.- ESKAERAK BALORATZEA

### 6.1.- Epaimahaia

Arabako Campuseko erreKtoreordeak erabakiko du nortzuk izango diren aukeratuak, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Arabako Campusaren Ekintzailetza, Enplegarritasuna eta Transferentzia zuzendaria, edo hark bere ordez izendatutako pertsona.
- Ekintzailetzan aditua den EHUko irakasle bat.
- Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroako (BIC Araba) ordezkari bat.
- INEUSTAR-eko (Asociación de la Industria de la Ciencia) ordezkari bat.

### 6.2.- Balorazio irizpideak

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan eta bosgarren atalean aipaturiko dokumentuak aurkeztu direla egiaztatu ondoren, epaimahaiak aurkeztu diren eskaerak baloratzeari ekingo dio, irizpide eta puntuazio hauen arabera:

a) Espediente akademikoa. Gehienez 20 puntu.

b) GALan edo MALan matrikulatuta egotea edo doktorego-tesia egiten aritzea. Gehienez 10 puntu.

## 6.- VALORACIÓN DE CANDIDATURAS

### 6.1.- Jurado

La resolución del fallo de seleccionados/as corresponderá a la Vicerrectora del Campus de Álava, previa propuesta del jurado, el cual estará compuesto por:

- El Director de Emprendimiento, Empleabilidad y Transferencia del Campus de Álava, o persona en quien delegue.
- Un/a profesor/a de la EHU experto/a en emprendimiento.
- Un/a representante del Centro de empresas e Innovación de Álava (BIC Araba)
- Un/a representante de la Asociación de la Industria de la Ciencia (INEUSTAR).

### 6.2.- Criterios de valoración

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, y verificada la aportación de los documentos a que se refiere el apartado cinco, el jurado procederá a valorar las solicitudes presentadas de acuerdo con los siguiente criterios y puntuaciones:

a) Expediente académico. Máximo 20 puntos.

b) Estar matriculado en el TFG o TFM o estar desarrollando la Tesis Doctoral. Máximo 10 puntos.

c) Eskatzailearen profila programaren helburuetara egokitzea. Gehienez 10 puntu.

d) Eskatutako ingeles maila baino handiagoa izatea. Gehienez 20 puntu.

e) Eskatzailearen motibazioa, konpromisoa eta jarrera ekintzailea. Gehienez 30 puntu.

f) Proposamena, ekintzailetzaren ikuspegitik, "Nola baliatuko nuke CERNen izandako esperientzia Araban ideia, proiektu edo ekimen berriak garatzeko?" galderari erantzunez. Gehienez 10 puntu.

c) Adecuación del perfil de la persona solicitante a los objetivos del programa. Máximo 10 puntos.

d) Nivel de inglés superior al exigido. Máximo 20 puntos.

e) Motivación personal, compromiso y actitud emprendedora. Máximo 30 puntos.

f) Propuesta de carácter emprendedor que responda a la pregunta: "¿Cómo convertiría mi experiencia en el CERN en una oportunidad para desarrollar nuevas ideas, proyectos o iniciativas en Araba?". Máximo 10 puntos.

**Gutxienez 50 puntu** lortu beharko dira hautatua izateko.

Sólo podrán ser seleccionadas las personas que alcancen una **puntuación mínima de 50 puntos**.

CERNen jarraibideen arabera hautatutako taldearen diziplina aniztasuna bermatzeko, gutxieneko puntuetara heltzen diren eskaerak eskatzaileen generoaren eta ikasketen jakintza adarren arabera banatuko dira, eta banaketa hori hartuko da kontuan programan parte hartuko duten pertsonak aukeratzerakoan.

Con el objetivo de garantizar la multidisciplinariedad del grupo seleccionado de acuerdo con las indicaciones del CERN, una vez alcanzada la puntuación mínima, las solicitudes se distribuirán por género y por rama de conocimiento de los estudios en los que estén matriculadas las personas solicitantes y se tendrá en cuenta dicha distribución a la hora de seleccionar a las personas participantes.

EHUko Estatutuekin eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planarekin bat etorriz, parte-hartzaileen azken taldean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, baita identitate ez-binarioa edo bestelako genero-identitatea duten pertsonen inklusioa ere. Genero baten gain-ordezkaritza gertatuz gero, oreka leheneratzen lagunduko duten hautagaitzak lehenetsiko dira, betiere eskatzen diren kalitate-eskakizunak betetzen badituzte.

De acuerdo con los Estatutos y el IV Plan de Igualdad de mujeres y hombres de la EHU, se velará por la presencia equilibrada de mujeres y hombres en el grupo final de participantes, así como por la inclusión de personas con identidad de género no binaria o diversa. En caso de sobrerrepresentación de un género, tendrán prioridad las candidaturas que contribuyan a restablecer dicho equilibrio, siempre que cumplan los requisitos de calidad exigidos.

Jakintza adarrak hauek dira:

- Zientziak
- Osasun Zientziak
- Gizarte eta Lege Zientziak
- Artea eta Giza Zientziak
- Ingeniaritza eta Arkitektura

Las ramas de conocimiento son:

- Ciencias
- Ciencias de la Salud
- Ciencias Sociales y Jurídicas
- Arte y Humanidades
- Ingeniería y Arquitectura

**6.3.- Aukeratutako pertsonen proposamena**

Eskaerak behin baloratuta, aurreko ataleko irizpideen arabera, programan parte hartuko duten 16 ikasleak aukeratuko ditu epaimahaiak.

Epaimahaiak Arabako Campuseko errektoreordeari helaraziko dio programan parte hartzeko aukeratuak izan diren pertsonen proposamena, erabakia har dezan.

Erabakia aukeratutako pertsona bakoitzari jakinaraziko zaio, eta INIZIA Araba Campusen webgunean argitaratuko da:

www.inizia.eus

Arabako Campuseko errektoreordearen erabakiaren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa kasuan kasuko administrazio auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

**6.4.- Gardentasuna eta jarraipena**

Deialdiaren ebazpenean, aurkeztutako eskaeren eta hautatutako pertsonen banakapena jasoko da, generoaren eta jakintza-adarraren arabera, trazabilitatea eta berdintasunaren eta aniztasunaren printzipioen betetzea bermatuz.

**7.- OINARRIAK ONARTZEA ETA GORABEHERAK**

7.1.- Parte hartzaileek, deialdian parte hartzearekin batera, deialdian zehazturiko baldintza guztiak onartzen dituzte, eta haien menpe geratzen dira. Gainera, programaren babesean aurrera eramango diren jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.

**6.3.- Propuesta de personas seleccionadas**

Valoradas las solicitudes conforme los criterios del apartado anterior, el jurado seleccionará a los/as 16 alumnos/as que participarán en el programa.

La propuesta del jurado sobre las personas seleccionadas para participar en el programa se elevará a la Vicerrectora del Campus de Álava para su resolución.

La resolución será notificada de manera individual a las personas seleccionadas y será publicada en la página web INIZIA Araba Campus:
www.inizia.eus

Contra la resolución de la Vicerrectora del Campus de Álava podrá interponerse recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación ante el mismo órgano que lo dictó, o bien directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo correspondientes en el plazo de dos meses a contar, igualmente, desde el día siguiente al de la publicación.

**6.4 Transparencia y seguimiento**

En la resolución de la convocatoria se incluirá un desglose de las solicitudes y de las personas seleccionadas por género y por rama de conocimiento, garantizando la trazabilidad y el cumplimiento de los principios de igualdad y diversidad.

**7.- ACEPTACIÓN DE LAS BASES E INCIDENCIAS**

7.1.- Las personas participantes, por el mero hecho de tomar parte en esta convocatoria, aceptan todas las condiciones que se especifican en la misma y se someten expresamente a ellas. Además, se comprometen a participar en las diferentes actividades que se desarrollarán en el programa.

Besteak beste, honako hauek dira jarduerak: CERN IdeaSquare-ren Workshop "Terraforming"–en aurkezpenera, Inizia Day-ra, Ekintzailetza prestakuntzara (2026ko urria-azaroa), etab.

Entre otras, formación en Emprendimiento (octubre-noviembre de 2026, presentación del Workshop "Terraforming" del CERN IdeaSquare, Inizia Day,), etc.

7.2.- Gerta daitezkeen gorabeherak eta oinarri hauetan aurreikusi gabeko egoerak epaimahaiak ebatziko ditu, eta prozedura aldetik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legea aplikatuko da.

7.2.- Las incidencias que puedan presentarse, así como los supuestos no previstos en estas bases serán resueltas por el jurado, siendo de aplicación en materia de procedimiento la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

7.3.- Arabako Campuseko Errektoreordetzak deialdi hau behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu.

7.3.- El Vicerrectorado del Campus de Álava adoptará las medidas oportunas para el correcto desarrollo de esta convocatoria.